

CALCUTA ONDOAN



NEPAL UHOLDEEN ONDOREN: LARRIALDIA IGARO ONDOREN ALBOAN EGOTEAREN GARRANTZIA

Abuztuaren 26an Nepal astindu zuten uholde eta luiziek ondorio larriak eragin dituzte herrialdeko hainbat eremutan. 1.250 pertsona baino gehiago hil dira, milaka lagun desagertuta daude oraindik, eta familia askok etxeak, ondasunak eta bizibideak galdu dituzte. Kaltetuenen artean Rasuwa, Nuwakot eta Dhading barrutiak daude.

Calcuta Ondoan GKEtik, gure tokiko bazkide Kopila Nepal-en bidez, diru-bilketa kanpaina bat jarri dugu abian kaltetutako komunitateei laguntzeko. Akonpainamendua ez dugu lehen une hauetara mugatu nahi; aitzitik, datozen hilabeteetan ere komunitate horien ondoan egon nahi dugu.

Lurraldetik bertatik lan egitea

Bina Silwal, Kopila Nepal tokiko erakundearen zuzendaria, lehen unetik ari da koordinazio-lanetan. Eta, halaber, bileretan parte hartzen tokiko administrazioekin, GKEekin eta kaltetutako komunitateetako ordezkariekin.

Kopila Dhadingeko, Nuwakoteko, Gorkhako eta Chitwaneko hainbat eremutan ari da lanean, leku bakoitzeko beharrak ondo identifikatzeko eta, batez ere, Gobernuaren laguntzak eskuratzeko zailtasun handienak izan ditzaketen familietara iristeko.

Azken elkarrizketa telematikoan, Bina-k bereziki azpimarratu zigun gai hau:

«*Hondamendi baten ondorengo lehen asteetan laguntza asko iritsi ohi da, baina pertsona guztiek ez dituzte laguntza horiek eskuratzeko aukera berberak. Adinekoek, desgaitasuna duten pertsonak, haurdun dauden emakumeak edo beren kargura adingabeak dituztenek, edota eremu isolatuagoetan bizi diren familiek zailtasun handiagoak izan ditzakete lekuz aldatzeko, informazioa jasotzeko edo banaketak egiten diren tokietara iristeko.*»

Horregatik, Kopilaren lanaren zati garrantzitsu bat familia horiek identifikatzea izango da, tokiko gobernuekin, eskolekin, sarean lan egiten duten beste GKE batzuekin eta komunitateetako kideekin batera.

Lehen egunetan soilik geratuko ez den laguntza

Kopila prestatzen ari den proposamenak premiazko laguntza eta gutxienez sei hilabetez luzatuko den laguntza-prozesua uztartzen ditu.

Lehen unean, beharrezkoa da kaltetuen dauden familiei elikagaiak, edateko ura, higiene-produktuak eta oinarritzko beste material batzuk ematea.



42. Zk
Iraila 2026

Era berean, arreta berezia behar dute desgaitasuna duten pertsonak, haurdun edo bularra ematen ari diren emakumeek eta uholdeak gertatu aurretik ere zaurgarritasun-egoera handiagoan zeuden komunitateek. Horien artean daude, besteak beste, Dhadingeko Benighat Rorangoeko Chepong komunitateko zenbait familia.

Gainera, Nepalen urteko ospakizun garrantzitsuenetako batzuk hastear daude. Familia askorentzat elkartzeko eta ospatzeko egunak dira, baina etxea, senitartekoak edo bizibideak galdu dituztenentzat egoera oso bestelakoa izango da. Kopilak familia zaurgarrienetako batzuei elikagai eta oinarritzko produktuen bidez lagundu nahi die egun horietan ere.

Negua eta eskolara itzultzea

Negua etorrera ere kezka-iturri da. Kopilak uholdeek kaltetutako 500 haur ingururi laguntzea aurreikusten du, eskola-uniformeak, neguko arropa eta hezkuntza-materiala eskainiz. Horrez gain, kaltetutako eremuetako 64 eskolatan lan egingo du.

Helburua da larrialdiaren ondorio ekonomikoek adingabeek eskolara itzultzeko edo ikasketekin jarraitzeko zailtasunak izatea ere ez eragitea.

Bestalde, Kopilak irakasleekin lan egin nahi du, horrelako esperientzia baten ondoren sor daitezkeen ondorio emozionalak identifikatzen eta haiei laguntza ematen laguntzeko.

Hondamendi batek uzten duen guztia ez da ikusten

Kopilaren lan-ildo garrantzitsuenetako bat laguntza psikosoziala izango da. Hondamendi baten ondoren begien-bistan ikusten ez diren zauri asko geratzen dira: beldurra, antsietatea, dolua, ziurgabetasuna edo pixkanaka eguneroko bizitzara itzultzeko zailtasuna.



Kopilak urteak daramatza arlo honetan lanean eta esperientzia hori uholdeei emango zaien erantzunean baliatu nahi du.

Proposamenak sei hilabeteko prestakuntza- eta laguntza-programa jasotzen du. Kaltetutako udalerrietako 16 pertsonari prestakuntza ematea aurreikusten da. Pertsona horiek prestakuntza espezializatua, gainbegiraturako praktika eta laguntza profesionala jasoko dituzte, ondoren beren komunitateetan oinarritzko laguntza psikologikoa, banaka zein taldean, eskaintzeko.

Arreta espezializatuagoa behar duten kasuak profesionalengana bideratuko dira. Ideia sinplea da, baina garrantzitsua: larrialdiaren lehen fasea amaitzen denean eta kanpoko taldeak joaten direnean, komunitateek bertan behar duten pertsonen laguntza jarraitzeko baliabideak eta prestakuntza izatea.

Eguneroko bizitza pixkanaka berreskuratzea

Kopilak, aurrerago, kaltetutako familia batzuen bizibideak berreskuratzeko lan egitea ere planteatzen du.

Diru-sarrerak sortzeko jarduerak bultzatzea aurreikusten da, Chepong komunitateetako eta baztertutako beste kolektibo batzuetako 200 familia ingururi laguntzeko. Familia horietako askok ez dituzte soilik ondasun materialak galdu, baita beren familiei eusteko baliatzen zuten bizibidea ere.

Calcuta Ondoanetik Kopilari lagundu nahi diogu prozesu honetan guztian, lurraldearen ezagutza eta emakumeekin, haurrekin, desgaitasuna duten pertsonekin eta zaurgarritasun-egoera berezietan dauden komunitateekin lanean 20 urte baino gehiagoko esperientzian konfiantza eginez.

Larrialdia ez da amaitzen albisteetan agertzeari uzten dionean. Familia askorentzat, orduantxe hasiko da benetan beren bizitzak berreraikitze prozesua.

ZUK ERE LAGUNDU DEZAKEZU

Ekarpen guztiek dute garrantzia.

Zure laguntzari esker, Kopila Nepal-en lana babesten eta kaltetutako komunitateen ondoan datozen hilabeteetan ere egoten jarraitu ahal izango dugu

Kutxabank

ES 80 2095 5008 22 1062572119

Fiare Banca Etica

ES 38 1550 0001 2100 0071 8122

Bizum bidez ere egin dezakezu dohaintza. Horretarako, hautatu **«Dirua GKE bati bidali» edo «Dohaintza»** aukera eta sartu gure kodea:

BIZUM “00558”

Calcuta Ondoan Onura Publikoko Erakunde izendatua da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakunde Lehentasunezko gisa aitortzen du. Horregatik, egindako ekarpenek dagozkien zerga-kenkarietaz baliatzeko aukera izan dezakete.

Eskerrik asko Nepalgo komunitateen ondoan egoten laguntzeagatik, larrialdia igarotzen denean ere.



CALCUTA ONDOAN ETA SARETUZ: ERALDATZEKO EHUNTZEN

Calcuta Ondoan-en uste dugu eraldaketa soziala ez dela bakarka eraikitzen. Sarean lan egitea, ezagutzak partekatzea, aliantzak sortzea eta indarrak batzea ezinbestekoa da amesten ditugun gizarteetarantz aurrera egiteko. Horregatik, 2010etik Saretuz-en parte gara, Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen Sarea, eta gaur egun haren talde eragilean ere parte hartzen dugu.

Saretuz-ek guztiz partekatzen dugun ideia batetik abiatzen da: gure kontsumo-erabakiek ondorioak dituzte. Zer erosten dugun, non erosten dugun eta zer eredu babesten dugun, ekoizteko, harremanak izateko eta gure ingurunea zaintzeko —edo ez zaintzeko— modu jakin batzuk sostengatzen laguntzen du.

Kontsumo kontziente eta eraldatzailea estrategia eta tresna gisa ulertzea gustatzen zaigu, bizitza erdigunean eta ekonomia haren zerbitzura izango dituen gizartea eraikitzeko. Justizian, emakumeen eta gizonen arteko nahiz herrien arteko berdintasunean, elkartasunean, lankidetzan eta naturarekiko orekan oinarritutako

gizartea; zaintzak aitortu eta modu bidezkoan banatuko dituen.

Saretuz-etik aldaketa hori Donostian bultzatzeko lan egiten dugu, hezkuntzaren, jardunaldien antolaketaren, komunikazioaren eta benetako alternatiben ikusgarritasunaren bidez. Sarearen tresnetako bat MapaSaretuz da: sarearen irizpideren bat betetzen duten eta egiteko eta kontsumitzeko modu kontzienteago eta eraldatzaileagoen aldeko apustua egiten duten saltoki, zerbitzu eta elkarteak biltzen dituen gida. Donostian dagoeneko existitzen diren alternatibak herritarrengana hurbiltzeko eta ikusgarri egiteko modu bat.



AGENDA

ASTELEHENA
IRA

14

Ecofeminismoa eta Naturaren eskubideak jardunaldia
II. edizioa - Cristina Enea, Donostia

9:00-17:30

LARUNBATA
URRI

10

"SOBERAN-IAIA Burua jan gabe, izan burujabe!"
Saretuz topaketa, Cristina Enea, Donostia

11:00-14:00

AZA

*Data
zehazteke

Dokumentalaren estreinua "Natura ere bagara"

*Ordutegia
zehazteke

IGANDEA
ABE

13

Legorretako elkartasun azoka - Legorreta

11:00-14:00

NORTZUK GARA?

Calcuta Ondoan ONGD erabilera publikoko erakunde izendatua da, eta 1999an sortu zen Gipuzkoan. Indian laguntza humanitarioko eta garapenerako proiektuak babesten ditugu, pertsonen eta taldeen garapen integrala sustatzeko. Betiere errespetatzen ditugu pertsona eta herri bakoitzaren nortasuna eta erlijioa, eta giza eskubideak zein genero-ekitatea sustatzen ditugu.

Gure inguruan, Hegoaldeko herrialdeetan ematen diren bazterketa, bidegabekeria eta pobretze egoeren arrazoiak, ondorioak eta horien aurrean dugun erantzukizun partekatua ulertzeko kontzientzia kritiko eta konprometitua bultzatzen dugu. Era berean, ikuspegi positibo batetik, elkartasuna, kulturaaniztasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua sustatzen ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroan AS/G8501/2001 zenbakiarekin inskribatuta dago, eta bere IFZ zenbakia G-20696175 da. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta Pobreziaren Aurkako Plataformako kidea da, eta 2009an Erabilera Publikoko Erakunde izendatu zuten (36/2009 Dekretua).

Calcuta Ondoaneko **boluntarioritza** adin guztietako pertsona aktibo eta konprometituek osatzen dute. Haien inplikazioari eta lanari esker posible da gure eguneroko jarduera aurrera eramatea. Animatu eta parte hartu!

HARREMANA



Calcuta Ondoan ONGD



calcutaondoan



Calcuta Ondoan ONGD



+34 943 431 849



info@calcutaondoan.org



Maestro Santesteban Kalea, 3 - 2ºB
20011 Donostia Gipuzkoa



Lagundu!
calcutaondoan.org

Zure ekarpenari esker, onura fiskalak eskuratu ahal izango dituzu; izan ere, erabilera publikoko erakunde izendatua gara. Hori dela eta, zure kuoten edo dohaintzen %30eraino desgraba dezakezu PFEZeant. Garrantzitsua: ekarpenak egitean, mesedez, adierazi zure NAN edo IFZ zenbakia.